

HITZAREN ESKOLA / IRAKASLEEN FITXA

IRAKASLEA: Haizea Barcenilla

DATA: 2021eko urtarrila

AZALPENA: Hitzaren Eskolako saio hauetan hitza eta irudiaren arteko harremana lantzen saiatu ginen. Alde batetik, erakusketak osatzen direnean irudien gainean kokatzen diren diskurtsoek eta hauetan hitzek duten presentzia landu genituen, erabat baldintzatzen baitute artearen pertzepzioa. Bestetik, irudia hitzetara pasatzeko zailtasuna aztertuko genuen, kritika eta deskribapena hizpide hartuta.

AURKIBIDEA (saioen eskema laburra)

1. **Saioa:** Hitza eta irudia. Ikuspegi historikoa (I)
2. **Saioa:** Hitza eta irudia. Ikuspegi historikoa (II)
3. **Saioa:** Erakusketen hizkuntza. Sarrera.
4. **Saioa:** Landa-lana: ABC erakusketara bisita
5. **Saioa:** ABC erakusketaren lanketa gelan
6. **Saioa:** Komisariotza posibleak
7. **Saioa:** Kritikara hurbilpena
8. **Saioa:** Mursegorekin tailerra

1. **SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak,

erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Lehen saioari sarrera emateko, hainbat irudi inprimatuta eraman nituen eta parte-hartzaileei hautatzeko eskatu nien. Irudi horren bitartez aurkeztu behar ziren eta irudiekin zuten harremana azaldu.

Behin guztiok aurkeztuta, lehen bi klaseak teorikoak izan ziren. Lehenengo honetan hitza eta irudiaren arteko harremanaz mintzatu nintzen, Antzinarotik hasita. Antzinako kulturetan artea eta idazkeraren artean ezartzen zen lotura majikoa aztertu genuen zenbait artelanen bitartez (Ur-Nansheren estela, Egiptoko hilobiak); ondoren, Grezia eta Erroman hitzak eta idazkerak hartzen zuten lekua ikustera pasa ginen, irudiarekin harremanetan beti. Ondoren Erdi Aroko artelanak aztertu genituen, ikusirik adibidez arkitektura, eskultura eta idazkera uztartzeko modua (Conqueseko katedralean adibidez) edo kodizeetan irudiaren agerpena, Herrad von Langsbergen Hortus Deliciarium liburua adibidez hartuta besteak beste.

Egun honekin amaitzeko arte arabiar erlijiosoan idazkerak duen garrantzia aztertu genuen, kontuan izanda ezin dutela arima duten izakien errepresentaziorik egin; Jerusalemeko Arrokarren Kupula izan genuen horretarako hizpide.

Saioan zehar, azalpen teorikoak emateaz gain, irudien hizkuntzari buruz hitz egin genuen ere, alegia, irudiaren kasuan konposizioa, kolorea, ordena, forma... eta bestelako elementuak kontuan hartzen ditugula guregan sortzen duten inpresioa ulertzeko.

Lehen egun honetan erabili genuen materiala nik prestatutako power point bat erabili genuen, eta 25 artelan inguru aztertu genituen.

2. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Bigarren saioa aurreko egunean hasitako bidea jarraitzeko erabili genuen. Irudia eta hitzaren arteko harremana lantzen jarraitu genuen, baina une garaikideagoetan. Abangoardietatik aurrera hitzak arte praktikan hartutako garrantzia ekarri genuen gogora, adibidez, Hugo Ballen performance errezitatiboekin, edo Sonia Delaunayk egindako poema-liburuekin (liburu honen facsimil bat klasera eraman nuen). Henri Michaux-en arte kaligrafikoa izan genuen hizpide; arte kontzeptualaren garrantzia eta honetan hitzak duen leku funtsezkoa, Lawrence Wieneren testuetan esate baterako, edo Joseph Kosuthen *Hiru aulkien* lanean. Feminismoak hitza erabiltzea aztertu genuen bestalde, Carolee Schneemanen *Barruko bilkaria* edota Itziar Elejalderen *Penelope* lanean. Denbora bat pasa genuen ere interneteko artean hitzak hartzen duen garrantziaz aritzen, adibidez, Dora Garcieren lanetan. Euskal Herriko zenbait artistek hitzarekin egin duten lana ikusiz amaitu genuen sesio teorikoa (Juan Perez Agirregoikoa, Elena Mendizabal, Jeleton besteak beste).

Honetarako berriz ere nik prestatutako power pointa baliatu genuen, eta 40 artelan inguru landu genituen.

3. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak,

erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Saio honetan erakusketaren hizkuntza aztertzen hasi ginen. Erakusketak produktu sofisticatuak, ausaz elkartutako irudiak izatetik urrun, ageriko zein ezkutuko diskurtso indartsuak sortzeko gai direnak. Horretarako irudien eta hitzen arteko lotura ematen da maiz, hitzaren bitartez (idatzizko testuak izaten dira erakusketen gaien adierazle) zehazten baita zein den irudi-multzoari eman nahi zaion irakurketa.

Erakusketen azterketan oinarritzen zen atal honek hainbat atal izan zituen. Lehenengo honetan, hainbat erakusketen irudiak eta testuak eraman nituen eta denon artean aztertu genituen, ikusiz zein modutan konbinatzen ziren hautatutako lanak eta horien gainean proiektatutako diskurtsoak. Bestalde, instalazioak hitz horiengan eragina izan dezakeela azaldu nien ere, horretarako Jackson Pollocken lanak, 1938ko Pariseko Erakusketa Surrealista edota Rekalde Aretoan ospatutako hainbat erakusketa erabiliz. Azkenik, Arte Ederretan egingo genuen saioa prestatzeko erakusketa aretoan fijatu beharreko elementuen gidoi bat eman nien eta denon artean aztertu genuen.

4. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Saio hau Bilbon gauzatu zen, Arte Ederretako Museoan. Bertan Kirmen Uribek komisariotutako ABC erakusketa bisitatu genuen. Hain zuzen, oso erakusketa aproposa zen hitza eta irudiaren arteko lotura aztertzeko, Uriberen testuen inguruan multzokatzen baitira artelanak. Taldeetan banatuta, gelaz gela joateko aukera izan genuen hainbat elementutan erreparatuz: gelan kokatutako testuak nola eragiten zion irudi bakoitzari; irudien multzokatzeak testuari erantzuten ote zion edo irudiaren beste logika batzuk argira ateratzen ote ziren...

Pandemiaren neurriak zirela eta, ezin izan genuen egun berean talde bakoitzak ateratako ondorioak amankomunean jarri, eta hortaz, hurrengo saio batean partekatzeko notak hartu zituen talde bakoitzak.

5. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Saio honetan aurreko egunean museoan hasitako ariketari jarraipena eman genion. Taldeen gogoetak amankomunean jarri eta gelaz gela deigarrien iruditu zitzaizkigun elementuak aztertu genituen: non hartzen zuen hitzak izaera literala, noiz jotzen zen metaforara, zein eragin zuen erabaki horrek lanen gainean... Bereziki deigarria egin zen zenbait lanek erakusketak ahalbideratzen zuena baino esanahi zabalagoa zutela, eta hitzaren menpe jartzeak irudiaren aberastasuna murrizten zuela. Erakusketaren hizkuntza aztertu genuen ere, pareten koloreek, irudien multzokatzeek edota lanen arteko erritmoek sortzen zituzten sentsazioak eta irakurketa posibleak.

Material gisa aurreko saioan hartutako apunteak eta museoak banatzen zuen erakusketaren liburuxka erabili genituen.

6. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Saio honetan aurreko ariketari (alegia, besteen irudi-hitz multzokatzeari) buelta eman genion eta parte-hartzaileei irudiak hartu eta narratiba berriak sortzeko eskatu nien. Erakusketan zeuden 40 lan inguru hautatu eta karpeta batean eraman nizkien; horietatik hautatuz mini-erakusketa bat egiteko eskatu nien. 5-8 artelan hartu, gela batean nola kokatuko zituzten erabaki eta hauek laguntzeko testu motz bat idazteko eskatu nien. Bi abiapuntu zeuden: irudiak hautatzea lehenengo euren ezaugarri artistikoengatik eta behin multzoa egina, testua sortzea; edo gai/testu bat asmatzea aurretik, eta ondoren horrekin bat egin zezaketen irudiak hautatu eta konbinatzea. Saio guztia ariketa hau egiten eta taldeen aurkezpenak egiten eman genuen. Materialari dagokionez, ABC erakusketan zeuden artelanen aukeraketa bat erabili genien, Museoaren bildumaren web orrialdetik hartutakoa.

7. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Saio honetan hitza eta irudiaren elkarbizitzan pentsatu beharrean, aurrekoetan bezala, irudia hitz bihurtzea izan genuen helburu, hau da, kritika eta deskribapena lantzea. Irudi batean ematen diren dinamikak bisualak dira, eta ez da beti erraza horiek hitzen bitartez adieraztea; horri norberaren esperientziak eta subjektibitatean eragiten duen irakurketa gehitu behar zaio. Hori guztia kontuan hartuta, aurreko egunean erabilitako irudi multzo bera hartu eta hortik irudi bat hautatzeko eskatu nien parte-hartzaileei; eta irudi horren gainean testu bat idazteko. Ez zuen zertan kritika bat, edo komisariotza-testua izan behar; parte-hartzaileak desiragarrien zuen testu mota izan zitekeen, narratiboa, deskriptiboa...
Saioaren erdia ariketa horri eskaini genion, eta beste erdia, norberaren testuak besteei irakurri eta iruzkinak egiten.
Materialari dagokionez, ABC erakusketan zeuden artelanen aukeraketa bat erabili genien, Museoaren bildumaren web orrialdetik hartutakoa.

8. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Azken saiorako Mursego musikaria izan genuen gonbidatu gisa. Mursegok Consonni argitaletxeak editatutako Lucy R. Lippard-en "Yo veo/Tú significas" liburutik abiatuta emanaldi bat du; liburu horren soinu-berrinterpretazioa da. Bereziki interesgarria da Lippard arte komisario eta kritikaria zelako, eta bere testuan arte kontzeptual eta minimalistaren formak argiki topatzen ditugulako; deskribatzen dituen gertakizun asko arte piezak dira, esaterako. Beraz, Lippardek iruditik hitzera itzuli zuen, eta Mursegok, hitzetik musikara.
Hortaz, saio honetarako Mursegorekin lan egin genuen, lehenik eta behin, liburutik hautatutako zeinbat testu hartu eta elkarrekin irakurriz, eta ondoren, Mursegok musikara itzulpena egiteko erabilitako prozesua azalduz. Hau emanaldi irekiarekin uztartu zen, non Mursegoren pieza osoa entzuteko aukera izan genuen.
Saio honetarako Lucy R. Lippard-en "Yo veo/Tú significas" liburutik ateratako testuak erabili genituen.

BIBLIOGRAFIA ETA ITURRIAK (erabilitako liburu, pelikula, artelan eta bestelako artefaktuak;

egile eta iturri nagusien erreferentziak eta estekak)

ERAKUSKETAK:

Laboratorios de los 70, Rekalde Aretoa
Phil Collins, *El retorno de lo real*, Rekalde Aretoa
Eileen Gray, Centre George Pompidou
Eileen Gray, ICA, Dublin
Jackson Pollock, *Mural*, LACMA
Exposición internacional del surrealismo, Galérie Beaux-Arts, Paris 1938
El Lissitzky, *Cabinete de los abstractos*, Hannover Landesmuseum, 1927
ABC, Arte Ederretako Museoa, Bilbo
Elena Mendizabalen erakusketa *Artiumen*, 2020
Jeleton, *Floritura*, La Taller, 2017

ARTELANAK

Ur Nanshe-ren estela K.a. 2500 ing. Mesopotamia
Arimen pisaketaren irudia, hildakoen liburua. K.a. 1300 ing. Egipto
Perseo, Andromeda eta Ketos, korintiar zeramika, K.a. VII ing. K.a. 580
Exekias, Akiles eta Ajax dadoetan jolasten, Marcus Caeliusen estela, k.o. 9. Xanten, Alemania
Trajanoren zutabea, K.o. 114
Liviaren Prima Porta Villako lorategiaren margoa, ninfeoa. K.o. lehen urteak
Conqueseko eliza erromanikoaren portada, XI. mendea
Michelangelo, *Moises*, 1515
José de Rivera, *Moises*, 1638
Arrokaren kupula, arte omeyarra. Jerusalem 687-691
Herrad von Lansberg, *Hortus deliciarum*, 1167-1185
Bayeuxeko tapiza, 1066
Massaccio, *Teofiloren semearen berpiztea eta San Pedro katedran*, Santa Maria del Carmine, Florentzia, 1425
Tiziano, *Urbinko Venusa*, 1538
León Pallière, *Arteen alegoria*, 1855
Hugo Ball, *Cabaret Voltaire*, 1916
Sonia Delaunay, *Jantzi-poema (Le Ventilateur tourne dans le coeur de la tête)*, 1922
Sonia Delaunay eta Blaise Cendrars, *Trantsiberiarraren eta Frantziako Jehanne txikiaren prosa*, 1913
Henri Michaux, *Narrazioa*, 1927
Henri Michaux, *Konposizioa*, 1958
Mondrian, *II. Konposizioa*, 1931
Jackson Pollock, *Mural*, 1943
Joseph Kosuth, *Aulki bat eta hiru*, 1965
Lawrence Weiner, *Un drap de cotó*, 2008
Carolee Scheemann, *Barruko bilkaria*, 1975
Itziar Elejalde *Penelope*, 1980
Dora García, [El factor humano](#), Terrassa, 2004
Dora García, *Uneko narratiba*, 2006-2008
Nedko Solakov, *Rutinak 1*, 2014
Juan Perez Agirregoikoa, *Instalazioa bilakatutako proiektua* 2007
Juan Perez Agirregoikoa, *Mandamendu anonimoak* 2004
Juan Perez Agirregoikoa, *Barkaidazu Mao*, 2004
Jeleton, *Ruda y romero* 2015

BIBLIOGRAFIA

HEGEWISCH, K. (ed) : *L'art de l'exposition: Une documentation sur trente expositions exemplaires du XXeme siècle*, Paris, Éditions du regard, 1998.

LIPPARD, R. LUCY, *Yo veo/Tú significas*, consonni, 2017

MANEN, M.: *Salir de la exposición (si es que alguna vez habíamos entrado)*, consonni, Bilbao, 2012.

NEWHOUSE, V.: *Art and the power of placement*. Monacelli Press, New York, 2005.

O'DOHERTY, B.: *Dentro del cubo blanco. La ideología del espacio expositivo*. Cendeac, Murcia, 2011.

URIBE, K.: *ABC*, Arte Ederretako Museoko katalogoa, 2019.